

Hego Intxaurreondo

«Gorriti gabe, ez dago festarik»

Larunbatean, hilak 3, haur asko Sagastieder plazan elkartuko da Gorritiren poney-en gainean ibiltzeko edota oilarrak abesten ikusteko. Gorriti Show-a Euskal Herriko festetako klasiko bihurtu da. Jose Mari Gorritik bere ibilbide bitxia kontatu digu.

Jose Mari Gorritiri betidanik gustatu izan zaizkio animaliak. Debatik gertu zegoen baserri batean jaio zen duela 64 urte eta oraindik go-goan du txikitan zaindutako lehen animalia: aitak oparitutako untxia. 18 urte zituela, Jose Mari Gasteizera joan zen, tailer batean lan egitera. Ez zen animaliekin ahaztu, ordea, eta besteak beste, untxiak eta zakurrak etxola batean biltzen hasi zen. Duela 30 bat urte, tailerrean lan egiteari utzi zion eta orduantxe hasi zen animaliak trebatzen eta zenbait herri kirolarekin batera herriz-herri ibiltzen. Euskal Herriko ezin konta ahala haurrek izan dute, urteotan

guztiotan, Gorriti Show-a ikusteko aukera.

Gaur egun, Gorritik sei poney, asto txiki bat, basurde pare bat, zezen txiki batzuk eta hiru oilar eraman ohi ditu furgonetan festarik festa. Oilarrek, adibidez, abestu eta ikusleak agurtzen dituzte. Haurrek, batik bat, poneyen gainean eta zezen txikiekin jolasean gozaten dutela esan digu Gorritik: "Primeran pasatzen dute; umeak sanferminetan baleude bezala ibiltzen dira zezentxoekin; hunkigarria da". Jose Mari animaliak trebatzeko lan handia egiten du negu partean, "ez baita batera erraza oilarrei agurtzen irakastea". Orain, batez ere

oilar batekin dago harro: "Plazan zertxobait aztoratzen da, baina baserrian adi-adi entzuten du nik esaten diodan guztia; ikustekoa da!".

Animaliak gustura

Gorriti eta bere animaliak Euskal Herrian zehar ibiltzen dira. Baina Errioxan ere badute Gorriti Show-aren berri. Nongo jaiak gustatzen zaizkion gehien galdetuta, honakoak aipatu dizkigu: "Zumaiakoak, Oriokoak, Nafarroako hainbat herritakoak... Festa polit asko daude eta leka askotan jendeak maite nauela igartzen dut. Eibarko Amaña auzoan, adibidez, ni gabe jairik ez dagoela esaten dute!". Gorritik ez ezik, animaliek beraiek ere kilometro mordo egin behar izaten dute. Hala ere, Jose Mari animaliak leku batetik bestera gustura joaten direla dio, "behar bezala zaindu eta maitatzen ditudalako". Herri ugaritan Gorriti bazkaltzera edo afaltzera gonbidatu izan dute, baina normalean emanaldia bukatutakoan, nahiago

izaten du etxera bueltatu, animaliak baserrian uzteko. "Orduan, lasaitu ederra hartzen dut!", dio. Jose Mari Zumaiari bizi da gaur egun, eta animaliak baserri batean ditu.

Dena dela, showman gipuzkoarra kezkatuta dabil adinarekin. "Gero eta leku gehiagotara joan nahi dut, baina 65 urte egingo ditut laster. Hala ere, animaliekin lanean jarraitzeko asmoa dut. Pilotariak ez dute frontoia utzi nahi izaten zahartzen diren arren eta niri ere beste hainbeste gertatzen zait haurrekin".

IZBERen kontzentrazioa

Asteartean, hilak 6, Intxaurreondo Zaharreko Bizilagunen Elkar-teak deituta, kontzentrazioa egingo da Zubiaurreko zubian, 20:00etan. Trenbidea estaltzeko ezagutarazitako proiektuekin, auzotarrek desadostasuna azaldu nahi dute.



Amara Zaharra

Amarako Euskal Jaiak

Ostiralean, hilak 2, eta larunbatean, hilak 3, Amarako X. Euskal Jaiak-San Nahid Eguna egingo da. Ostiralean, 12:00etan, barrena jokatuko dute Arroka kaleko frontoian eta 21:30ean bertso afaria izango da Haritza elkartean, Jon Maia eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin. Larunbatean, 18:00etan, Sagardo Eguna egingo dute.



Hego Intxaurren

Ohi bezala, Intxaurren doko festetako ekitaldi gehienak Sagastieder pasealekuan izango dira.

Ostirala 2

17:00 Azoka bikia Andre Mari eliza laguntzeko

18:00 Kaldero Jaunaren erromeria: Koadrilak Sagastieder pasealekutik abiatuko dira Ametzagaina muinora, eta bertatik Kaldero Jaun auzora jaitsiko dute. Ametzagainan barrikotea egingo da

20:00 Oscar Terol antzeleak pregoia irakurriko du. Jarraian, herri poteoa, txarangak lagunduta. Buruhandiak aterako dira

20:15 Arrain frijitu jatea Intxaurren elkartean. Goloka taldearen "Qué mundo tan loco" antzeziana

22:00 XII. Mus Txapelketa, Intxaurren elkartean.

22:30 Dantzaldia Kresala orkestrarekin, eta zezensuzkoa

23:00 Zine emanaldia, Gaztegunean

02:00 Zezensuzkoa

Larunbata 3

Intxaurren zahar etxeko pintura

ikasleen artelanak ikusgai egun osoan

10:00 Diana trikitilarekin. VI. Kaldero Jaun Arrantza Txapelketa, Pasa Donibanen

11:00 VI. Petanka Txapelketa, Txara I eta Txara II egoitzaren artean. Izena Intxaurren zahar etxean eman behar da

12:00 Herri-kirolak haurrentzat. Merkatu bikia Andre Mari eliza laguntzeko. Kalejira eta herri poteoa Patxaranga txarangarekin, buruhandiekin eta Kaldero Jaunarekin. Txorizo egosia eskainiko zaie Txara I eta Txara II egoitzetako lagunei. Futbito txapelketako finala, Hego Intxaurren ikastetxean

14:00 Arrantza txapelketaren sari banaketa

17:00 Entzierroa haurrentzat. Jarraian, buruhandiak

18:00 Umeen eta helduen danborradak Intxaurren elkartetik aterako dira. Herri kirolak: Iraki eta Inaxio Perurena harri jasotzaileak, Ugaitz

eta Alaitz Mugerza aizkolari gazteak eta Fausto Mugerza aizkolari beteranok

19:30 Gorriti Show-a

20:30 Ugarte Anaiak txalapartariak

21:00 Sardina jatea

21:30 The Patenks rock&roll taldea Sagastieder pasealekuan ariko da. Ostadar taberna ondoan

23:00 Dantzaldia Orquesta Aveni-dako Emilio Azkaraterekin

00:30 Zezensuzkoa. Dantzaldia berriro hasiko da

03:00 Zezensuzkoa

Igandea 4


10:00 Diana

11:00 Txu-Txu trenean Intxaurren dori biratxo egiteko aukera izango da. Haur parkea Hego Intxaurren ikastetxean. Extremadurako herrialde-etxeko gastronomia eta artisautzak erakusketa

11:30 Kalejira Patxaranga txarangarekin

12:00 Meza Andre Mari elizan. Maria Reina abesbatzaren emanaldia

13:00 Extremadurako herrialde-



Egitaraua

etxeko Virgen de Guadalupe taldearen emanaldia

14:00 Herri bazkaria

16:00 Haur jolasak. Txu-Txu trenaren Hego Intxaurren ikastetxetik aterako da

16:30 Toka eta bote txapelketa

17:30 Entzierroa umeentzat

18:15 Areto-dantzak, Academia de Julio-Bailes de Salón taldearekin.

19:30 Hortzmuga taldearen "Kaleketa" antzeziana, Sagastieder pasealekuan

20:30 Jatorrenak txaranga eta buruhandiak

21:30 Kaldero Jaun epaituko dute

Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza

El Andorrano

1860tik zurekin

Alkandorak • Lentzeria

Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: 943 420607

PARMA hotela

Itsaso aurrean

Bainua, berogailua, telebista eta telefonoa gela guztietan

SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: 943 428019